

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA: 2.GAIA. IKUSKARITZAKO ARAU TEKNIKOAK

Galdera bakoitzean erantzun zuzena(k) azpimarratu:

1. Kontuen auditoria araudiari buruz:

- a. Kontuen auditoria araudiak auditoretza Legea, bere Erregelamendua, ikuskaritzako arau teknikoak, etika arauak eta auditore zein auditoria elkarteen barne kalitate kontrolari buruzko arauak biltzen ditu.
- b. Ikuskaritzako arauak (NIA-ES), besteak beste, ondorengo gaiak arautzen dituzte: auditorearen erantzukizuna, ikuskaritza nabaritasuna eta ikuskaritza txostena.
- c. Kontuen auditoria araudia munduko herrialde guztietan berdina da.
- d. Kontuen Auditoria Legeak bakarrik osatuko du araudia.
- e. Auditoria arau esparrua Merkataritza Kodea eta Kontabilitate Plan Orokorrak osatzen dute.
- f. Nazioarteko Ikuskaritzako Arauak (NIA-ES) Europar Batasuneko Direktibak dira, erdarara itzuli direnak.
- g. Bakarkako auditoreek (indibidualek) auditoria araudi berezia dute (sinplifikatua).
- h. Kontabilitate Plan Orokorra auditoria arau bat da.

2. Zein da gezurra: kontu auditoreak mantendu behar du.

- a. Independentzia.
- b. Apaltasuna.
- c. Zintzotasuna.
- d. Objektibotasuna.

3. Independentzia nahitaezkoa dela kontuan hartuta, printzipio hau babesteko legeak ondorengo neurriak zehazten ditu:

- a. Auditoreak independentzia zalantzan jar dezaketen mehatxuak aztertuko ditu eta babes sistemak ezarriko dira. Adibidez, auditatu den enpresatik opariak jaso daitezke lana amaitu ondoren, baina ez lana amaitu aurretik.
- b. Auditoreak independentzia zalantzan jar dezaketen mehatxuak aztertuko ditu eta babes sistemak ezarriko dira. Horretarako lantaldeak independentziaren aitortza sinatuko du.
- c. Independentziaren zaintza auditoreari berari eta Korporazio Profesionalei bakarrik dagokie, inola ere ez ICAC-i.
- d. Independentzia izatea oso zaila da, beraz nahikoa da auditoreak independentzia denaren itxura agertzea.

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA: 2.GAIA EBAZPENA

1.	a; b
2.	b
3.	b